ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 0

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENCIONES: 0

11. Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Gipuzkoako garraio publikoko tarifen jaitsiera dela eta.

11. Moción ordinaria, presentada por el grupo EH BILDU, ante la bajada de tarifas del transporte público en Gipuzkoa.

KENDUA

RETIRADA

12. Mozio arrunta, PSE-EE Taldeak aurkeztua, Mugi tarifa-eredua eta Mugi sistemako tarifak sozialagoak eta ekonomikoagoak izateko neurriak hartzea dela eta.

12. Moción ordinaria, presentada por el Grupo PSE-EE, sobre el modelo tarifario de Mugi y adopción de medidas para hacer más sociales y económicas las tarifas del sistema Mugi.

KENDUA

RETIRADA

GZK 1. Mozio arrunta, EH BILDU eta PSE-EE taldeek aurkeztua, Mugi tarifa-eredua eta Mugi sistemako tarifak sozialagoak eta ekonomikoagoak izateko neurriak hartzea dela eta.

FOD 1. Moción ordinaria, presentada por los Grupos EH BILDU y PSE-EE, sobre el modelo tarifario de Mugi y adopción de medidas para hacer más sociales y económicas las tarifas del sistema de Mugi.

“Marisol Garmendia Beloqui, PSE-EE Udal Taldeko bozeramaileak eta Reyes Carrere Zabala, EH Bildu Udal Taldeko bozeramaileak,

“Marisol Garmendia Beloqui, Portavoz del Grupo Municipal PSE-EE y Reyes Carrere Zabala, Portavoz del Grupo Municipal EH Bildu, al amparo

Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten dute, udalbatzaren osoko bilkuran eztabaidatzeko, MUGI sistemaren tarifa-ereduari buruz eta MUGI sistemaren tarifak sozialagoak eta merkeagoak izateko neurriak hartzeari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

MUGI tarifa-sistema Gipuzkoako tarifa-eredua da 2013tik, eta Gipuzkoako indar politiko gehienek babesa du, baita MUGI sisteman sartuta dauden garraio publiko alorreko erakunde eskudun haien ere. MUGIren tarifa-eredua, gure garraio publikoaren eredua, sistema ekologiko, sozial eta demokratiko bihurtzen duena, Gipuzkoako herritar guztien batasunerako eta kohesiorako elementua da, eta alderdi politikoen artean aurrekaririk gabeko adostasuna du, Gipuzkoako herritarren mugikortasun eskubidea bermatzen duen zerbitzu publiko baten eredu gisa.

MUGI tarifa-eredu hau 2013an abian jarritako sistema bateratu bat da, Gipuzkoako Garraioaren Agintaritzak kudeatzen du eta txartel bakar integrala dela esan daitekeen Euskadiko, Espainiako eta Europako tarifa-eredu bakarra da; izan ere, 2013tik Gipuzkoako garraio-operadore publiko guztiak daude integratuta garraio publikoa planifikatzeko eta koordinatzeko GGLA organo bakar horretan, eta gure tarifa-ereduaren bereizgarri ahaltzuena ere jarri zuen abian: garraiorako gure MUGI TXARTELA ezartzen duen eta gure tarifa-eredua ahalduntzen duen tarifak integratzeko sistema.

Eta guztiak esaten dugunean, tarifa-eredu bakarrarekin konpromisoa hartuta duten garraibide guztiak direlako esaten dugu, inor

del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presentan la siguiente MOCIÓN ORDINARIA para su debate en el Pleno, sobre el modelo tarifario de MUGI, y la adopción de medidas para hacer más sociales y económicas las tarifas del sistema MUGI.

JUSTIFICACIÓN

El sistema tarifario MUGI es el modelo tarifario de Gipuzkoa desde el año 2013, en que se constituye, y cuenta con el apoyo de la inmensa mayoría de las fuerzas políticas guipuzcoanas, así como de las instituciones competentes en materia de transporte público integradas en el sistema MUGI. El modelo tarifario de MUGI, que hace de nuestro modelo de transporte público, un sistema ecológico, social y democrático, es un elemento de unión y cohesión de toda la ciudadanía guipuzcoana, y de consenso sin precedente entre los partidos políticos, como modelo de servicio público que garantiza el derecho fundamental de movilidad de la ciudadanía guipuzcoana.

Este modelo tarifario de MUGI es un sistema unificado que se puso en marcha en el año 2013, gestionado por la Autoridad del Transporte de Gipuzkoa, y se constituye en el único modelo tarifario de Euskadi, España y Europa del que puede decirse es un billete único integral, puesto que – desde ese año 2013 todos los operadores públicos de transporte de Gipuzkoa se integraron en ese único órgano, la ATTG, de planificación y coordinación del transporte público, poniendo en marcha también el distintivo más poderoso de nuestro modelo tarifario: el sistema de integración tarifario que implanta nuestra tarjeta de transporte la TARJETA MUGI, y empodera nuestro modelo de tarifas.

Cuando decimos todos, es porque son todos, sin exclusiones ni excepciones, los medios de transporte que se comprometen con un único

baztertu gabe eta salbuespenik gabe: errepideko garraio publikoaren zerbitzu guztiak, bai hiriartekoak (Lurraldebus eta ibilbide luzekoak), bai hiri barrukoak (Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Zarautz, Arrasate, Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun, Oñati eta Tolosa), bai eta tren-garraio publikoak ere (Euskotren eta Renfe aldiriak).

Gipuzkoarrok txartel bakarrarekin bidaiatzen dugu Gipuzkoako garraibide guztietan. Baina gure tarifa-ereduak ez duenez mugarik izan nahi, Araba osoan ere erabil daiteke balioko ordainketa-modu gisa; eta Bizkaira laster iritsiko gara. Gipuzkoako jende asko bizi da bertan –bertan ikasten edo lan egiten dutelako–, eta badira arrazoi berberengatik egunero Lurraldebus erabiltzen dutenak eta garraibide publiko guztietan euren MUGI txartela erabili nahi dutenak ere.

Gipuzkoako tarifa-ereduaren erabileraren hedapen hori posible da, MUGI sistemaren erabiltzaile-kopurua Gipuzkoako biztanleriaren ia % 80ra iristen delako, eta mugi tarifa-eredu bakarra delako, eta, tarifen integrazioari esker, eredu sozial eta bidezkoa izateko baldintza guztiak betetzen dituelako, ekologiko izateaz gain.

MUGIren tarifa-ereduarekin:

1. Erabiltzen duzunagatik bakarrik ordaintzen duzu.
2. Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gutxiago ordaintzen duzu.
3. Eta, gainera, ekitatea bermatzen duzu, gizarte-babesaren premia handiena duten kolektiboek hobari handiak emanez: adinekoak, gazteak, langabeak, baliabide gutxiago eta gaitasun bereziak dituztenak.

modelo tarifario: todos los servicios de transporte público por carretera, tanto interurbanos (Lurraldebus y largo recorrido), como urbanos (San Sebastián, Irun, Errenteria, Eibar, Zarautz, Mondragón, Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun, Oñati y Tolosa) y también los medios de transporte público ferroviarios (Euskotren y Renfe Cercanías).

Los y las guipuzcoanos viajamos en todos los medios de transporte con una única tarjeta en Gipuzkoa. Pero como nuestro modelo tarifario no quiere tener fronteras, también puede usarse como medio de pago válido en toda Álava, y próximamente, llegaremos hasta Bizkaia. Son muchas las personas de Gipuzkoa que residen allí - por estudios o trabajo - cuando no viajan diariamente con Lurraldebus por idénticos motivos y quieren usar su MUGI en todos los transportes públicos.

Esta expansión de uso del modelo tarifario de Gipuzkoa es posible gracias a que la comunidad de personas usuarias de MUGI llega hasta casi un 80% de fidelización de la población guipuzcoana y hace de MUGI el único modelo tarifario que - gracias a la integración de tarifas-tiene todos los condicionantes para ser un modelo social y justo, además de ecológico.

Con el modelo tarifario de MUGI:

1. Sólo pagas por lo que usas.
2. Cuanto más lo usas, menos pagas
3. Y además garantizas la equidad con grandes bonificaciones a los colectivos con mayor necesidad de protección social: personas mayores, jóvenes, desempleadas, de menos recursos y con capacidades especiales.

Mugi tarifa-ereduari esker, nahi duzun lekura bidaiatu dezakezu, nahi duzun bezala, bizilekua eta dituzun baliabideak edozein direla ere. MUGI tarifa ereduak ez ditu gizarte aurrerapenetik kanpo uzten baliabide gutxien dituzten pertsonak. Garraio publikoa normaltasunez erabiltzen baduzu, jakin badakigu zenbat eta gehiago bidaiatu, orduan eta merkeagoa izango dela.

Gipuzkoarrok MUGI KOMUNITATEKO kide izaten jarraitu nahi dugu, tarifa merkeak eta sozialak ordainduta, hain zuzen ere orain arte erakutsi dugun bezala. COVID 19aren pandemia osteko krisi betean, tentsio sozial eta ekonomikoaren ondorioz, gutxien dutenak ari dira gehien sufritzen; horrez gain, gerra testuinguruak nabarmen aztoratu ditu gobernuen ekonomiak, baina batez ere Gipuzkoako emakume, gizon eta familienak. Horregatik guztiagatik, MUGI sistema babesten jarraitu nahi dugu, garraio publikoaren erabiltzaileei lasaitasuna emateko. Baina, gainera, uste dugu are gehiago sakondu behar dela MUGI SISTEMAREN tarifen ekitatean eta justizian, familia-ekonomiak itotzea edo zailtzea eragin dezaketen une zailen aurre egiteko.

Horregatik, tarifa oraindik ere sozialagoak eta, horrenbestez, progresiboagoak egitea aldezen dugu; eta uste dugu 2022an, Gipuzkoako Garraioaren Agintaritzan MUGIrako tarifikak eztabaidatzen eta erabakitzen direnean, tarifa-eredu horretan beste urrats bat emateko unea izango dela.

Garraio publikoa gehien erabiltzen duenari mesede egiten dion MUGIren filosofian sakonduz, beharrezkoa ikusten dugu laugarren tarte bat sortzea, deskontuak sektore gehiagotara zabaltzeko. Eta horrela, tarifen deskontuak agerikoak izanda, MUGI erakargarriagoa egitea lortuko genuke, bere

Con el modelo tarifario MUGI viajas donde quieras, como quieras, con independencia de lugar de residencia y de cuantos recursos tengas. MUGI es el modelo tarifario que no deja a las personas que menos tienen excluidas del progreso social. De un conocimiento a nivel usuario normal del transporte público se sabe que, con MUGI, cuanto más viajas, más barato lo haces.

Las y los guipuzcoanos queremos seguir perteneciendo a la COMUNIDAD MUGI con tarifas, como hemos demostrado, baratas y sociales. En plena crisis post pandemia por la COVID 19, con la tensión social y económica haciendo sufrir a las personas que menos tienen, y con un escenario de guerra que esta convulsionando la economía de gobiernos, pero sobre todo de mujeres, hombres y familias de Gipuzkoa, queremos seguir protegiendo el sistema MUGI, dando tranquilidad a las personas usuarias del transporte público. Pero, además, entendemos que ha llegado el momento de profundizar aún más en la equidad y justicia de las tarifas del SISTEMA MUGI ante los momentos difíciles que pueden ahogar o dificultar las economías familiares.

Es por ello que nosotros defendemos hacer unas tarifas aún más sociales, y, por tanto, más progresivas; y creemos que en este año 2022, cuando se produzca el debate y decisión de las tarifas para MUGI es el momento de dar un paso más en este modelo tarifario de Mugi para lograr ese objetivo.

Ahondando en la filosofía de MUGI, que consiste en beneficiar más a quien más usa el transporte público, consideramos necesario crear un cuarto tramo para extender los descuentos a más sectores. De esta forma, siendo los descuentos de las tarifas más visibles, conseguiríamos hacer una MUGI más atractiva y potenciaríamos su uso.

erabilera bultzatuz.

Bidegiren diru-bilketaren ehuneko bat garraio publikoa sustatzera bideratzea jasotzen du 1/2011 Foru Dekretuaren 2. xedapen gehigarriak, Europako zuzentarauak irekitzen duen aukera baliatuz. Zalantzarik gabe, ekimen honi eutsiz gero, Gipuzkoako Foru Aldundiak klima-alaketaren aurkako borrokan ekarpena egingo luke, Gipuzkoako ahalmen handiko errepideak erabiltzean erregai fosileko ibilgailuen joan-etorriek sortzen dituzten CO₂ isuriak murrizteko norabidean.

Donostiako Udalak irmoki defendatzen du garraio publikoaren sistema inoiz baino gehiago indartzeko unea dela, pandemian galdutako erabiltzaileak berreskuratzeaz gain, sisteman erabiltzaile berriak txertatzeko, eta, horretarako, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak osatzen duten administrazioek beharrezko neurri guztiak aztertu beharko lituzkete. Izan ere, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren xedea da gizartearentzat mugikortasun irisgarria eta kalitatezkoa sustatzea Gipuzkoa osoan, egungo zein etorkizuneko eskaerari erantzunez.

Horiek horrela, agiri hau sinatzen duten Udal Taldeek honako hau proposatzen diote Donostiako Udalbatzari:

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari eskatzen dio tarifen balizko jaitsieraren eta horrek izan ditzakeen ondorioen azterlana egitea adosteko, eta, hori ikusita, gutxienez, hurrengo bi ekitaldietan tarifen prezioei eutsiko zaiela bermatzeko, horrela ziurtatzeko garraio publikoaren erabiltzaileek ez dietela beren soldatekin aurre egingo energiaren eta

La Disposición Adicional 2ª del Decreto Foral 1/2011 contempla destinar un porcentaje de la recaudación de Bidegi al fomento del transporte público, utilizando para tal fin la vía que abre la Directiva europea. No cabe duda de que, mediante esta iniciativa, la Diputación Foral de Gipuzkoa contribuiría a la lucha contra el cambio climático, ya que se reducirían las emisiones de CO₂ derivadas del tráfico de vehículos que utilizan combustibles fósiles que circulan por las vías de gran capacidad en Gipuzkoa.

El Ayuntamiento de San Sebastián defiende firmemente que es el momento de reforzar más que nunca el sistema de transporte público, además de recuperar a los usuarios que ha perdido durante la pandemia, de incorporar nuevos usuarios al sistema y para ello habría que estudiar todas las medidas necesarias por parte de las administraciones que forman parte de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa. De hecho, la ATTG tiene la misión de impulsar una movilidad accesible y de calidad para la sociedad y a lo largo del territorio histórico, atendiendo tanto a la demanda actual como a la futura.

Por todo lo expuesto, los Grupos Municipales abajo firmantes proponen al Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián la siguiente:

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa a acordar el estudio de la posible bajada de tarifas, y los efectos que esta pudiera tener, y a la vista del mismo, como mínimo establecer el mantenimiento de los precios de tarifas en los dos próximos ejercicios con el objetivo de imposibilitar en cualquier caso que sean las personas usuarias del transporte público las que afronten con sus

erregaiaren prezio igoerak eragindako krisiari, ez eta Gipuzkoako gizarteak bizi duen inflazio handiari ere.

2. Donostiako Udalbatzarrak Gipuzkoako Garraioaren Agintaritzari eskatzen dio onar dezala MUGIko deskontuen sistema aldatzea, horren progresibitatean eta gizarte-justizian sakontzeko, eta laugarren tarte bat sar dezala, MUGI txartelaren erabiltzaileek doakotasun handiagoa izan dezaten MUGI txartela erabiltzen den tarte guztietan.

3. Donostiako Udalbatzarrak Gipuzkoako Garraioaren Agintaritzari eskatzen dio jarrai dezala MUGI sistemaren tarifa-ereduaren misio soziala aztertzen, bereziki zaurgarriak diren gizarte kolektibo berriak sartzeko.

4. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako garraio-sistemako zerbitzu guztiak berreskuratzeko eskatzen dio Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari, baita erabiltzaileak gutxitzeagatik edo beste edozein erabakirengatik murriztu direnak ere, eta RENFEren aldirietako zerbitzuan gertatzen ari den egoera arintzen lagunduko duten neurriak aztertzea ere eskatzen dio.

5. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari eskatu dio garraio-eskaintza zabaltzeko, erabiltzaile guztien eskariei erantzuteko behar beste.

6. Horrek guztiak Gipuzkoako garraio publikoaren tarifa-sistemaren kostuak handitzea ekar dezakeela jakinik, Donostiako Udalbatzarrak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Errepideen Foru Sareko bidesari lotutako zatietan bildutakoaren zati bat itzul dezala, eta martxoaren 29ko 1/2011 Foru Arauaren Bigarren Xedapen Gehigarria aktiba

sueldos las crisis que han provocado la subida de energía y combustible, y la fuerte inflación que afecta a la sociedad guipuzcoana.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa a aprobar la modificación del sistema de descuentos de MUGI, para ahondar en su progresividad y justicia social, incluyendo un cuarto tramo, lo que dará a las personas usuarias de MUGI mayor gratuidad en todos los tramos de uso de la tarjeta MUGI.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa a avanzar en la misión social del modelo tarifario del sistema MUGI, con la inclusión de nuevos colectivos sociales especialmente vulnerables.

4. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa a que recupere todos los servicios en el sistema de transporte de Gipuzkoa, incluso aquellos que se han visto comprometidos por la disminución de usuarios o por cualquier otra decisión, y apostando por el estudiando medidas que ayuden a paliar la situación que se está dando en el servicio de Cercanías de Renfe.

5. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa a ampliar su oferta de transporte tanto como sea preciso para atender las demandas de todos los usuarios y usuarias.

6. Siendo conscientes de que todo esto puede suponer un incremento en los costes del sistema tarifario del transporte público de Gipuzkoa, el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que revierta parte de lo recaudado en los tramos sujetos a peaje de la Red Foral de Carreteras y active la Norma Foral 1/2011 de 29 de marzo incorporada

dezala, haren zazpigarren tituluko garraioari buruzko Foru Dekretuaren bidez.

en el título Séptimo y de su Decreto de desarrollo, con el objetivo de fomentar el transporte público.

Donostia, 2022ko apirilaren 13a

San Sebastián, a 13 de abril de 2022

Reyes Carrere Zabala
EH Bilduren bozeramailea
Portavoz EH Bildu”.

Marisol Garmendia Beloqui
PSE-EEren bozeramailea
Portavoz PSE-EE”.

Eztabaida hasita, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.^a Marisol Garmendia Beloqui, D.^a Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.^a Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Jorge Mota Iglesias y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

EAJ/PNV TALDEAK GZK 1. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA AL ASUNTO FOD N.º 1 PRESENTADA POR EL GRUPO EAJ/PNV:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 12 – (10) EAJ/PNV, (2) PP.

AURKAKO BOTOAK: 14 – (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 12 – (10) EAJ/PNV, (2) PP.

VOTOS EN CONTRA: 14 – (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

ABSTENCIONES: 0.

GZK 1. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO FOD N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

II.2

KONTROL MOZIOAK

II.2.1. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, berdeguneen kontserbazioari buruzkoa.

“Elkarrekin Donostia udal-talde politikoko zinegotzi Haizea Garay Gallastegui, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL-MOZIO hau aurkezten du, hil honetako batzordeetan berdeguneak mantentzeko eta kontserbatzeko beharrari buruzko interpelazioa aurkeztu ondoren.

JUSTIFIKAZIOA

Urte gutxian, gure hirian planteatu diren hainbat hirigintza-proiektuk berdeguneen degradazioa eragin dute —Berarratzan, esaterako—, edo etorkizun hurbilean berdeguneak desagerraraziko dituzte —Antondegin iragarri duten olatu artifizialen igerilekuarekin, adibidez—. Hau da, egiten eta proiektatzen ari diren zenbait esku-hartzek naturaguneak ezabatzea dakarte, nahiz eta horiek hiriko birika berde gisa jarduten duten ingurumenaren kutsaduraren aurkako borrokan.

Gaur egun berde diren gunek ezabatzeko proposamenaz gain, hirigintza-tresnak onestean, etengabe lagatzen dira espazio berdeak eta publikoak, eta haien balio ekonomikoagatik monetarizatzen dira, berdeguneak galdu ordez beste aukerarik baden aztertu gabe. Praktika horrek berdeguneen etengabeko galera dakar, eta, urbanizazioak egitearekin batera, hormigoian oinarritutako espazio publikoa sortzen du; halaxe egin dute, duela gutxi, Jolastokietan

II.2

MOCIONES DE CONTROL

II.2.1. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a la conservación de espacios verdes.

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras la interpelación en las comisiones del presente mes relativa a la necesidad de mantenimiento y conservación de espacios verdes.

JUSTIFICACIÓN

En pocos años se han planteado en nuestra ciudad distintos proyectos urbanísticos que han provocado la degradación de espacios verdes, como es el caso de Belartza, o darán lugar a la desaparición de zonas verdes en un futuro relativamente cercano, como es el caso de la piscina artificial de olas anunciada en Antondegi. Es decir, se están produciendo y proyectando intervenciones que suponen la eliminación de espacios naturales que actúan como pulmón verde de la ciudad en la lucha contra la contaminación ambiental.

A la propuesta de eliminar estas zonas actualmente verdes, en la aprobación de instrumentos urbanísticos se produce de forma continuada la cesión de espacios verdes y públicos y su monetarización por su valor económico, sin realizar ningún estudio de alternativas para trasladar esa pérdida de superficies de zona verdes. Esta práctica provoca una pérdida incesante de zonas verdes, que unido a la ejecución de urbanizaciones como la recientemente realizada en Jolastokieta, donde no

(han ez dute zuhaitzik landatu).

Bestelako kasuak ere ikusi ditugu: esaterako, Plan Orokorren Aldaketan, Illarra eta Villa Ereski eremuetako eraikigarritasuna areagotzearekin lotzen da lurzorua, eta, era horretan, lege-eskakizuna betetzen da; izan ere, horren arabera, bizitegitarako hirigintza-eraikigarritasuna areagotzearekin batera espazio libreak ere areagotu behar dira. Erregeneke lursailak ez dira egokiak; izan ere, alde batetik, sustatutako jarduketatik urrun daude, eta ez dituzte betetzen Plan Orokorren espazio libreetarako eskatzen dituen gutxieneko baldintzak, irisgarritasunari eta maldari dagokienez; hori dela eta, herritarrek ezin dituzte erabili benetan eta eraginkortasunez.

Horrez gain, une honetan, Groseko lursail bat (zehazki, Okendoaldekoa) jabari publikoko emakidan ematea planteatzen ari dira. Lurzati hori Basque Culinary Centerri lagatzea aztertzen ari dira, eraikin bat egiteko. Gaur egun, 13.200 m²-ko berdegune bat dago lurzati horretan, eta, hor aurreikusitako eraikina eginez gero, berdegunea 5.200 m²-ra murriztuko da, hau da, egungo espazioaren erdira baino gutxiagora. Kontuan hartu behar da, gainera, Grosen kokatua dagoela, hiriko auzorik populatuenean, alegia, eta berdeguneen eta aisialdi-guneen defizit larria duela.

Egoera hori ikusita, eta berdeguneak osasunerako zer onuragarriak diren kontuan hartuta, ezinbestekoa iruditzen zaigu gogoeta sakon bat egitea hiriko hainbat lekutan gertatzen ari den berdeguneen galerari buruz. Hain zuzen ere, OMEk berdeguneetarako sarbide unibertsala gomendatzen du, eta, zehazki, esaten du gutxienez 0,5 hektareako berdegune bat izan behar dela etxebizitza

se han plantado árboles, genera un espacio público basado en el hormigón.

Por otra parte, hemos asistido a otras casuísticas como la del suelo que la Modificación de Plan General vincula con el incremento de edificabilidad en los ámbitos de Illarra y de Villa Ereski para satisfacer la exigencia legal de incremento de espacios libres correspondiente a los aumentos de edificabilidad urbanística residencial. Los terrenos de Erregenea no son los apropiados por ubicarse, por un lado, en un lugar alejado de la actuación promovida, que no reúne las condiciones mínimas que requiere el Plan General para los espacios libres en lo que se refiere a accesibilidad, pendiente, cuestiones que hacen que no sea posible su uso real y efectivo por la población.

Además de ello, en estos momentos se está planteando la concesión demanial de una parcela en Gros, en concreto, en Okendo-Alde donde se valora ceder la parcela al Basque Culinary Center para construir un edificio. Actualmente la parcela cuenta con un espacio verde de 13.200 m² y con las previsiones a construir el espacio verde quedaría reducido a 5.200 m², esto es, menos de la mitad del espacio actual, en un barrio como Gros que, siendo el barrio más denso de la ciudad, tiene un grave déficit de zonas verdes y áreas de esparcimiento.

Ante esta situación y dado el beneficio de los espacios verdes para la salud, consideramos imprescindible plantear una reflexión profunda sobre su pérdida en distintos puntos de la ciudad. De hecho, la OMS recomienda el acceso universal a los espacios verdes y en concreto especifica que debe existir un espacio verde que mida al menos 0,5 hectáreas a una distancia en línea recta de no más de 300 metros de cada domicilio.

bakoitzetik gehienez 300 metrora, lerro zuzenean. Ildo beretik, berriki, Cecil Konijnendijk hiriko baso-ingeniariak 3-30-300 araua proposatu du hirietako berdeguneetarako arau orokor gisa. Hark iradokitzen du pertsona guztiek izan beharko luketela etxetik gutxienez hiru zuhaitz (tamaina handikoak) ikusteko aukera, auzo bakoitzean % 30eko zuhaitz-estaldura izan beharko litzatekeela, eta inork ez lukeela bizi behar parke edo berdegune batetik 300 metro baino gehiagora.

Hori dela eta, hau da gure

KONTROL-MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal-gobernuari egin dezala hiriko berdeguneen diagnostiko espezifiko bat plan orokorra berrikusi aurretik, OMEren gomendioak betetzeko behar diren neurri zuzentzaileak hartzeko, eta, modu horretara, berdeguneetarako sarbide unibertsala bermatzeko, donostiar guztiek izan dezaten gutxienez 0,5 hektareako berdegune bat bizilekutik 300 metro baino gertuago, lerro zuzenean.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal-gobernuari landa-lurzoru gisa finka ditzala Antondegi eta Berarratza eremuak (gaur egun arriskuan daude), oso-osorik mantendu daitezen berdegune gisa. Era berean, eskatzen dio eremu horiek hiriko gerriko berdearen parte izan daitezela, modu horretara, klima-larrialdiari aurre egiteko modua izan dezagun.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal-gobernuari egin ditzala Jolastokietako eremuan egin beharreko aldaketak, duela gutxi urbanizatutako eremu

En este mismo sentido, Cecil Konijnendijk, ingeniero forestal urbano, propuso recientemente la regla 3-30-300 como regla general para los espacios verdes en las ciudades. Sugirió que todas las personas deberían poder ver al menos tres árboles (de un tamaño significativo) desde su casa, que debería haber un 30% de cobertura de árboles en cada barrio y que nadie debería vivir a más de 300 metros del parque o espacio verde más cercano.

Por este motivo, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a realizar un diagnóstico específico de las zonas verdes de la ciudad previa a la revisión del Plan General con el objetivo de tomar las medidas correctoras necesarias que permitan cumplir con las recomendaciones de la OMS garantizando el acceso universal a espacios verdes, de tal manera que todos los y las donostiaras tengan un espacio verde de al menos 0,5 hectáreas a una distancia en línea recta de no más de 300 metros de su domicilio.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a consolidar los ámbitos actualmente en peligro de Antondegi y Belartza como suelo rural al objeto de mantener la totalidad de esos ámbitos como espacios verdes formando parte de un cinturón verde en la ciudad y así hacer frente a la emergencia climática declarada.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a realizar las modificaciones necesarias en el ámbito de Jolastokieta para plantar arbolado en la zona

horretan zuhaitzak landatzeko.

4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal-gobernuari zuhaitz gehiago alda ditzala hiri-lurzoruan, pertsona guztiek etxetik gutxienez tamaina handiko hiru zuhaitz ikusteko modua izan dezaten eta hiriko auzo bakoitzean % 30eko zuhaitz-estaldura izan dadin.

5. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal-gobernuari ez dezala emakidan eman Okendoaldeko lurzatia, harik eta hiriko berdeguneen diagnostikoa egin eta Gros auzoaren beharrak zein diren zehaztu arte.

Donostia, 2022ko apirilaren 22a

Haizea Garay Gallastegui
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia”.

recientemente urbanizada.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a incrementar el arbolado en suelo urbano de tal manera que se pueda avanzar en la consecución del objetivo relativo al acceso de todas las personas a ver al menos tres árboles de porte significativo desde su casa y una cobertura de árboles del 30% en cada barrio de la ciudad.

5. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a no conceder la parcela de Okendo-Alde hasta que no se realice el diagnóstico de zonas verdes de la ciudad y se determinen las necesidades del barrio de Gros.

Donostia, a 22 de abril de 2022

Haizea Garay Gallastegui
Concejala de Elkarrekin Donostia”.

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak, Nekane Arzallus Iturriza andreak eta Jorge Mota Iglesias jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, D.ª Nekane Arzallus Iturriza y D. Jorge Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:

1. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.

ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 17 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.
ABSTENTZIOAK: 1 – EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.

VOTOS A FAVOR: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 17 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.
ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA-

1. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 17 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.
ABSTENTZIOAK: 1 – EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 17 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.
ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.

1. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA, (2) PP.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 1 – EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA, (2) PP.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.

1. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 17 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.

ABSTENTZIOAK: 1 - EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 17 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.

ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.

1. KONTROL MOZIOAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 17 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.

ABSTENTZIOAK: 1 - EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 17 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.

ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.

II.2.2. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Boulevardeko aparkalekuko igogailuaren publizitateari buruzkoa.

“Jorge Mota Iglesias talde popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, interpelazioa aurkeztu baitzuen Gune Publikoen, Obren eta Hiri Zerbitzuen batzordean, Bulebarreko aparkalekuko igogailuko publizitatearen inguruan.

JUSTIFIKAZIOA

Talde honek udal titulartasuneko aparkalekuetako igogailuetako publizitateari

II.2.2. Moción de control, presentada por el grupo PP, sobre la publicidad en el ascensor del parking del Boulevard.

“Jorge Mota Iglesias, concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la publicidad en el ascensor del parking del Boulevard.

JUSTIFICACIÓN

El histórico de denuncias presentadas por este Grupo sobre la publicidad en los ascensores de

buruz aurkeztutako salaketen historia honako hau da:

lazko martxoaren 15ean, ahozko erantzuna emateko galdera bat aurkeztu genuen Gune Publikoen, Obren eta Hiri Zerbitzuen batzordean, Udalak Kontxako aparkalekuko igogailuetan publizitatea egiteko baimena eman ote zuen jakiteko. Pilar Arana zinegotzi ordezkariak erantzun hau eman zuen: “Mugikortasun zerbitzuak inoiz ez du baimenik eman bide publikoan publizitatea egiteko, horretarako Udalaren lurpeko aparkalekuetako elementu ikusgarriak erabiliz”. Horrez gain, hau ere esan zuen: “kontratuan ez da aurreikusten egitura horietan publizitatea jartzea”. Orduan, publizitatea kentzera behartu zuten enpresa.

2021eko abuztuan, berriz ere publizitatea ikusi genuen Kontxako aparkalekuko igogailuetan, eta, horregatik, irailaren 20an, beste interpelazio bat aurkeztu genuen gertakari hori salatzeko. Batzordea egin eta hurrengo egunean, publizitatea kendu egin zen.

2021eko irailaren 30ean, Udalbatzara eraman genuen Kontxako aparkalekuko igogailuko publizitateari buruzko kontrol-mozioa. Mozio horretan, gobernu taldeari eskatu genion enpresa adjudikaziodunari ultimatum bat eman ziezaiola, igogailuetan berriz publizitaterik ez jartzeko, eta enpresa adjudikaziodunak berriz ere goragailuetan publizitaterik jartzen bazuen, zehapen-prozesuari ekin ziezaion. Talde guztiek aho batez onetsi zuten.

Apirilean berriz ere ikusi dugu Bulebarreko aparkalekuko igogailuak publizitate-panel gisa erabiltzen ari direla. Horregatik, apirilaren 11n, berriz ere interpelazio bat aurkeztu genuen Gune Publikoen, Obren eta Hiri Zerbitzuen Batzordean, gertakaria salatzeko.

los parkings de titularidad municipal es el siguiente:

El 15 de marzo del pasado año presentamos una pregunta para su respuesta oral en la comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre si el Ayuntamiento había autorizado la publicidad en los ascensores del parking de la Concha. La concejal delegada, Pilar Arana respondió que: “nunca se ha autorizado por parte del departamento de movilidad la explotación publicitaria en la vía pública, utilizando para ello los elementos emergentes de los aparcamientos subterráneos municipales”. Y añadió que: “en el contrato no se contempla la publicidad en esas estructuras”. Entonces se obligó a la empresa a retirar la publicidad.

En el mes de agosto de 2021, nuevamente volvimos a ver publicidad en los ascensores del parking de la Concha y por tal motivo el 20 de septiembre, presentamos nueva interpelación denunciando los hechos. Al día siguiente de celebrarse la comisión, fue retirada la publicidad.

El 30 de septiembre de 2021, llevamos a Pleno la moción de control sobre la publicidad en el ascensor del parking de La Concha, en la que instábamos al equipo de Gobierno a que diera un ultimátum a la empresa adjudicataria para no volver a insertar publicidad en los ascensores, así como a que en caso de que la empresa adjudicataria volviera a instar publicidad en los elevadores, iniciara un proceso sancionador, siendo aprobada por unanimidad por todos los Grupos.

En el presente mes de abril observamos nuevamente como en los ascensores que dan acceso al parking del Boulevard, vuelven a ser usados como valla publicitaria. Por tal motivo el 11 de abril, una vez más presentamos interpelación en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos denunciando los hechos.

Pilar Arana zinegotzi ordezkariak erantzun hau eman zuen: "Ez dago ondo jarrita. Kentzeko eskatuko dugu; bigarren aldia da, eta errepikatzen bada edo konponbiderik ematen ez bada, zehapen-espediente bat ireki beharko da".

Egia esan, ez da publizitatea jartzen duten bigarren aldia, hirugarrena baizik. Deigarria da Udalak ezer ez egitea gure taldeak egoera salatu arte.

Gure ustez, enpresa adjudikaziodunaren jarrera desegokia da, publizitaterik jartzeko baimenik ez duela ondo dakien arren, berriro ere jartzen baitu.

Ez zaigu logikoa iruditzen, kontratuan adjudikaziodunak elementu horien publizitaterik jartzea aurreikusten ez dela jakin arren, eta enpresa adjudikazioduna ohartarazi ondoren, berriz ere igogailuetan publizitate elementuak jartzea.

Gure ustez, ohartarazpenak alde batera utzi eta zehapen espediente bat ireki beharko litzaioke enpresa adjudikaziodunari, behin eta berriz jarri dutelako publizitatea eta Udalak egindako errekerimenduei eta ohartarazpenei jaramonik egin ez dielako.

Aipatutako guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio enpresa adjudikaziodunari zehapen espediente bat irekitzeko, Bulebarreko aparkalekuko igogailuetan publizitatea jartzeagatik, Udalak eskatu eta ohartarazita horren inguruko debekua berri izan arren.

La concejal delegada, Pilar Arana respondió que: "No está bien puesta. Requeriremos para quitarla, ya es la segunda vez y habrá que tramitar un expediente sancionador si esto se repite o no dan soluciones."

En realidad, no es la segunda vez que colocan publicidad, sino la tercera. Llama la atención que desde este Ayuntamiento no se haga nada hasta que este grupo denuncia la situación.

Entendemos que esta actuación de la empresa adjudicataria es impropia, al reincidir sobre un tema que sabe perfectamente que no tiene autorización.

No vemos lógico que, a pesar de saber que en el contrato adjudicatario no se contempla la explotación publicitaria en dichos elementos y tras haber sido apercibidos, vuelvan a colocar elementos publicitarios en los ascensores.

Creemos que se debiera pasar de los apercibimientos a la incoación de un expediente sancionador a la empresa adjudicataria, al ser reincidentes y, por hacer caso omiso a los requerimientos y advertencias efectuadas por el Ayuntamiento.

Por todo lo expuesto, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de Gobierno a que incoe un expediente sancionador a la empresa adjudicataria, al reincidir en la colocación de publicidad en los ascensores que dan acceso al parking del Boulevard a pesar de ser conocedora de su prohibición al estar requerida y apercibida

por el Ayuntamiento.

2. Donostiako Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio udal aparkalekuen enpresa adjudikaziodunek behin eta berriz egiten dituzten ez-betetze horiei adi egoteko, emakida kontratuan sinatutakoa ez betetzea saihesteko.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a estar vigilantes a estos incumplimientos reiterados por parte de la empresas adjudicatarias de los parkings municipales para impedir que incumplan lo firmado en el contrato de la concesión.

Donostia, 2022ko apirilaren 18a

San Sebastián, a 18 de abril de 2022

Jorge Mota Iglesias
Udaleko talde popularreko zinegotzia”.

Jorge Mota Iglesias
Concejal del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Jorge Mota Iglesias jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, interviene en este punto el señor. D. Jorge Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
UNANIMIDAD.

II.2.3. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Txomin Eneako Distric Heating sistemaren funtzionamenduari buruz.

II.2.3. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el funcionamiento del Distric Heating en Txomin Enea.

“EH Bildu taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrek KONTROL MOZIO hau aurkezten du Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, Txomin Eneako District Heating sistemaren funtzionamenduaren inguruan. Apirilaren 11ko Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorio da mozio kontrol hau.

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, sobre el funcionamiento del Distric Heating en Txomin Enea. La moción de control es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 11 de abril.

JUSTIFIKAZIOA

Txomin Enea auzoan energia kolektiboko sistema bat dago, District Heating izenekoa. Teorian, instalazio horrek eraginkortasun energetiko handiko sistema bat du oinarri, hain zuzen ere erabiltzaileen energia-kontsumoa murrizteko eta energiaren banaketan galerak saihesteko.

Txomin Enea auzoaren errealitatea dela eta, bertan bi etxebizitza-eraikin mota daude: lehendik zeuden bizitegi-eraikin finkatuak batetik, eta bizitegi-eraikin berriak bestetik.

Beraz, auzoan District Heating sistema ezartzeko diseinatutako proiektuak erantzun egokia eman behar die, bai bizitegi-eraikin berrietan sistema hori instalatzeko orduan —horretarako, bizitegien diseinua sistema horrek eskatzen dituen eskakizun teknikoetara egokitu behar da—, bai plangintzak finkatutako bizitegietan sistema hori instalatzeko orduan.

Udalak sustatu zuen bizitegi-eraikin finkatuak aipatutako energia banaketa-sistema horretan txertatzea, eta, kasu horretan, egin beharreko obrak GIROA SAUK GIROA VEOLIA SAU enpresaren bitartez egiteko betebeharra ezarri zuen.

Enpresa horrek eraikin guztiak bisitatu zituen, energia-instalazioaren proiektua egiteko, horretarako behar den trazadura zehazteko, eta beharrezko isolamenduak, diametroak eta hodian luzerak zehazteko.

Hala ere, aipatutako bizitegietako bizilagunak bizi eta jasotzen ari diren errealitateak eta fakturek agerian uzten dute sistema ez dela behar bezala funtzionatzen ari bizitegi

JUSTIFICACIÓN

El barrio de Txomin Enea está dotado de un sistema de energía colectiva denominado District Heating. En principio, la instalación se basa en un sistema con una alta eficiencia energética que permite la reducción de consumos de las personas usuarias y evita las pérdidas de energía en su distribución.

La realidad del barrio de Txomin Enea hace que coexistan en el mismo los inmuebles residenciales que quedaron consolidados junto con otros nuevos edificios residenciales.

Por tanto, el proyecto diseñado para la implantación del sistema del District Heating en el barrio debe dar una respuesta adecuada a las nuevas edificaciones residenciales -para lo que el diseño de las mismas debe adecuarse a los requerimientos técnicos que dicho sistema requiere- y debiera prever, también, la instalación del citado sistema de energía en los inmuebles que el planeamiento consolida.

Desde el Ayuntamiento se impulsó que los inmuebles residenciales consolidados se incorporasen al citado sistema de distribución “imponiéndoles”, en tal caso, la obligación de que las obras a acometer fuesen ejecutadas por GIROA SAU, a través de la empresa GIROA VEOLIA S.A.U.

La citada empresa visitó todas las edificaciones a los efectos de realizar el proyecto de la instalación energética en las mismas, definir el trazado requerido para ello y dimensionar los aislamientos requeridos, los diámetros y las longitudes de tuberías.

Sin embargo, la realidad y las facturas que están recibiendo los vecinos y vecinas de los mencionados inmuebles ponen de relieve que el sistema no está funcionando adecuadamente, que

finkatuetan, eta energia-galerak handiegiak direla, % 60 ingurukoak batez beste. Gainera, bizilagunek diotenez, zerbitzua ematean gorabehera asko izaten ari dira.

Bestalde, sistema hori instalatzeko dirulaguntza nabarmenak jaso ziren, bai Europako Batzordearen aldetik, bai Udalaren beraren aldetik. Hori dela eta, beharrezkoa da gorabehera handi horiek sortzen ari diren arazoak identifikatzea eta, hala badagokio, konpontzea; bai eta sistemaren galera handiak ere. Horrez gain, gauzatutako proiektua ikuskatu egin behar da.

